

NERE AITATXIN ONDAR EGUNAK

Perpetua Saragueta

(Mezkiritz, Erroibar, Nafarroa Garaia, 1905 – Iruñea, 1986)

Negu artan, jua zire Usetxiko errira nere bi aitatxiak, nere aita eta aitan bi anaiak geago. Oianean bazire ezpel onak, anitz eta ederrak. Ai zire eginala egin, moztu eta biltzen, denak ongi eta langile onak. Baño etzue denbora anitz iraun bear ongitasunak, laister utzi bear zigu. Ilbeltzean Atsalde batez etorri ze nere aita, asto gañan gizon bat ongi inguratua, zer da? nor da? Ze nere amain aita; gizajoa! Ekarri zio arront gaizki, alborengo edo pulmonia zue; nere amatxik, bere andreak, sendagilleak baño lenago ezagutu zion. Segido etorriazi zute eta erran zue etzekiela oraño zer ote zen eta amatxik erran zio: alborengua? Eta sendagilleak erran zio ongi miratu ondoan: arrazoña duzu, eritasun aundia dauka berekin.

Etorri ze berriz biramonean eta erran zue gaizki zela eta erran zio: bai badakit gaizki dela, ezagutu zu bertze eritasuna, ez? zer du? zer? erran zio nere amatxik kabardilloa (ez dakit euskeraz edo erderaz den) eta kabardilloa edo tabardilloa, nik ez dakit, baño ala zela eta segido ereman zutela apezka eta egin zuela biar zituen gauza guziak, eginak alborengo bedratzigarren egunean il zela. Jaungoikoak dezala berekin eta goietik otoitz egin dezala guregatik.

Guatzean zegolaik, juaten nitze ikustera eta galdera egiten nio: aitetxi, polliki zaude? Eta beti erraten zire: bai ene maitea, polliki nago. Ori guatzean zegoen denboran, baño atsalde batean galde egin nion, baño itzik etzire erran; eta orduan artu nue alki bat eta ien nitze guatzera, eta nere matelak paratu nituelaik bere matelen onduan, ezagutu nue otz aundia zuela eta ixil ixilik zegola. Orduen, min aundi batekin neure barnean, jua nitze ama eta amatxingana eta erran niote: ereman zazie aitetxiri berotasun zerbait, otzak dago. Orduen ikusi zute alki an zegola, ni guatze gañan egon nitzala... eta egin nuen guzia. Negar anitz egin zute, eta nik naigabe eman niote bat aundia.

Aitetxi il zelai, elur aldi aundi bat bazego denetik. Mila bederatziegun eta amarrean ilbeltzaren ogeita iruan il zen. Nik lau urte eta bortz ilabete nitue. Urbilen epaillearen lemexiko astean artu zire nere bi esku beroen artean, artu zue nere otza, eta ereman zire erleak zeuden tokira amatxik, eta erlauntza guzietan io zue pixka bat deituz erlei,

eta erranez: zuen eta nere nagusia il da. Egin zazie argizeri geiago. Eta erlauntza guzietan entzun ze marmar aldi bat eta jua gine geuren etxera.

Uda azkenean etorri ze argizari biltzeko eguna eta erran zute pusken ere argizeri geiago egin zutela. Gero egunoro baze argizari auserki aitetxin elizako obian eta urte anitez bixtu ze bere obian bi argizari bedere. Euskal Errian argia begiratzen da egunero argi dezaten ilen bidea zeruraño. Ori izen da sinesmen bat aspaldikoa.

IÑIGO, Andres (2011). [Perpetua Saraqueta: eskuidatziak eta hiztegia.](#) Iruñea: Nafarroako Gobernua; Bilbo: Euskaltzaindia. (88-89).